

GIZONEZKOAK "EMAKUMEZKOEN" ESPARRUETAN

·Zuek bai jakin!· Toribio Kerejeta ·Elkarrizketa: Edu Reguero

·Izerdi patsetan: Lasa ahizpak ·Boteprontoan: Mikel Iturriotz

# Herri Aldizkaria Otamotz

2011ko

otsaila

164. alea



Herri Aldizkaria  
Otamotz

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,  
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...  
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN  
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!



Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU  
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE  
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

**FAGOR**

**Argitaratzailea:** Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Iker - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Gizonezkoak “emakumezkoen” esparruetan
- 11 Editoriala**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Zer iritzi duzu tabernetan erretzea debekatzeari buruz?  
Zeintzuk dira bere alde onak eta txarrak?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**  
Iker Igartua
- 18 Zuek bai jakin!**  
Toribio Kerejeta
- 22 Elkarrizketa**  
Edu Reguero
- 25 Izerdi patsetan**  
Lasa ahizpak
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Argazki zaharra**
- 30 Boteprontoan**  
Mikel Iturriotz



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

# Gizonezkoak “emakumezkoen” lanbide eta esparruetan

*Urtero bezala, martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna ospatuko da. Historian zehar emakumeek hamaika diskriminazio jasan dituzte lan munduan eta horietako bat rolekin lotuta dago: lanbide batzuetan atek itxi zaizkie eta beste batzuetan, berriz, eurek bakarrik aritu daitezkeela dirudi. Zorionez, gauzak aldatzen ari dira. “Emakumezkoen” lanetan aritzen diren gizonezkoekin hitz egin dugu.*

Sebas Iturriotz bere etxeko sukaldean lanean.



## Sebas Iturriotz: “Sukarra duen bi urteko umearen erreferentzia bere ondoan dagoena da, berdin dio aita edo ama izan”

Askori onartzea komeni ez bazaie ere euskarak denetarako balio du. Baita emakumeak diskriminatzeko ere, zoritxarrez. Hala, etxeko lanak egiten dituenari etxekoandrea deitzen zaio. Baina gizonetzko gehienek gero eta lan gehiago egiten dute etxean. Batzuek, Sebas Iturriotzek esaterako, emazteak bezainbeste edo gehiago. Berak euskalgintzan lan egin du azken hamarkadotan eta emaztea aparejadorea da. Seme-alabak jaio zirenean argi ikusi zuten: Sebas izango zen etxeko lanen eta haurren hezkuntzan ardura nagusia hartuko zuena.

Alaba jaio zenean Bergaran ari zen lanean. “Nik lanaldi-erdia nuen eta ez zitzaigun interesatzen osoa hartzea. Hala, etxeko lanen zatirik handiena nik hartu nuen. Langabezian egon nintzenean ere hala izan zen. Orain, berriz, biok antzeko egoeran gaude”.

Ez da bere garaian hartutako erabakiaz damu. “Lanaldi-osea hartzeko aukerak izan nituen, baina etxeko erantzukizunei uko egitea suposatzen zuen eta ez nuen haurrekin egoteko aukera galdu nahi. Umeak hazteko aukera galtzea triste da. Lanerako aukerak etorriko dira... Beharbada egoera espero baino gehiago luzatu zen, baina seme-alabak hazi dira eta orain badut etxetik kanpo gehiago lan egiteko aukera. Ez naiz inondik inora damutzen hartutako erabakiaz”.

Ez du uste seme-alabekin etxean gelditu nahia emakumezkoen kontua denik. “Ez da sexu kontua, bizitzaren une horretan

nola zauden baizik. Nik aukera hori izan nuen. Lanean 14 urterekin hasi izan banintz ez nuen aukera hori izango. Beharbada konforma errazak garelako ere egin genuen, arlo ekonomikoari ez geniolako garrantzia handirik eman”.

Dena den, argi utzi nahi du ez zuela etxeko lanen ardura osoa hartu. “Lan batzuetan ondo moldatzen naiz, baina beste batzuetan desastrea naiz. Gaur egun ordu asko pasatzen ditut etxetik kanpo, baina nire gain hartzen ditut erosketak eta intendentzia. Bazkaria ere egiten dut. Ordu eta erdian denetik egin dezaket. Alor hori kontrolatzen dut. Arropa kontuetan, ordea... Garbigailua jartzea tontakeria da, baina tolestea... Etxeko edozeinek nik baino askoz ere azkarrago egiten du”.

Eurek hartutako erabakiari arrunta deritzo. “Gero eta gehiago ikusten dira halakoak. Lehen ez ziren aitona karrotxoarekin ikusten, adibidez. Neurri handi batean, gauzak normalizatu egin dira. Dena den, gu umeak ginenean ere aitek gertuko harremana zuten seme-alabekin. Guk txiki-txikitatik jaso izan dugu hori. Bestalde, amak erosketak egitera bidaltzen ninduela gogoratzen dut. Lan horretarako nahiago ninduen ni ahizpak baino”. Baina lan gutxi batzuk egitea eta ardura nagusia hartzea gauza ezberdinak dira. Aitak etxeko lan gehienak hartzea oraindik ez da arrunta, baina Sebasen seme-alabek hori ikusi dute euren etxean. “Modu naturalean ikusi dute. Badakite sukalde eta erosketa kontuez aitarekin hitz egin

behar dutela, baina besterik gabe. Amak etxetik kanpo ordu asko pasatzen ditu, baina arropa kontuez ez dute nirekin hitz egingo. Ordenagailua izorratzen bada, berriz, niregana joko dute. Espezializazio bat dago”.

Ez du uste sexuak seme-alabekin harremana baldintzatzen duenik. “Umea gaixotzen denean bata edo besteak eramaten du medikuarengana. Batekin edo bestearekin denbora gehiago pasatu, harremana era batekoa edo bestekoa da. Sukarra duen bi urteko umearen erreferentzia bere ondoan dagoena da, berdin dio aita edo ama izan”, laburbildu du. Dena den, etxe gehienetan bezala, aitona-amonen laguntza ere izan dute. “Gure amak asko lagundu digu. Amarekin konplizitatea izan dut beti eta berak ere modu naturalean ikusi du gure etxekoa. Gure umeekin gozatu egin du eta umeek asko ikasi dute berarekin”.

Lagunartean ere naturaltasunez ikusi dute Sebas Iturriotzen eta Bego Etxanizen erabakia. “Lagunak gure antzekoak dira. Beharbada euren etxean emakumezkoa izango zen haurrak medikuarengana eramango zituena, baina kontuan izan behar da nik Medikuntza ikasi nuela”.


Esan bezala Sebas ez da hartutako erabakiaz damu. “Umeak txikiak direnean beharrak ez dira oso handiak. Beharbada orain etorriko dira komeriak, Unibertsitatearekin. Bestalde, familia aurrera ateratzea erronka polita da eta ilusio handiarekin lan egiten da. Esker oneko

lana da eta gozatu egiten da. Nik jaso ditudan bi opari onenak biberoiak berotzeko gailua eta presio-eltzea izan dira. Gure gurasoen garaian ez zegoen halakorik. Guk teknologia aprobetxatu ahal izan dugu. Bizitza ona tokatu zaigu. Etxeko lanak garai batean baino eraman-garriagoak dira”.

Ez zaio axola gizarteak lan hauei merezi duten aitortpena eskaintzea edo ez. “Familiarentzat lan egiten denean, gizarteak eskertu edo ez eskertu... Gainera, lana baino gehiago konpromisoa da. Enpresa batean hartzen den konpromisoa. Batzuetan lanetik atera eta beste gauza batzuk gusturago egingo nituzke, baina... Dena den, ez daukat gaizki ordaindua izanaren sentsazioa”.

Hori bai, argi du egun osoa enpresa hori aurrera ateratzen ematen duen pertsonari, “gehienetan emakumea”, soldata bat eman beharko litzaiokeela. “Gure inguruan dagoeneko ez da hain ohikoa, baina oraindik familia batzuetan emakumea etxeko lan guztiez arduratzen da. Batzuek etxean sekulako karga dute. Ez horrenbeste seme-alabengatik, familia gutxitan baitaude bi baino gehiago, baizik eta zaharrengatik. Kontu horretan gizonezkoa oraindik oso berde dago. Zaharren eta ezinduen zainketan oraindik ere emakumea gu baino askoz ere arduratsuagoa da. Horientzat eta etxean seme-alaba asko dituztenentzat diru-laguntza egon beharko litzateke. Beharbada gure seme-alabek hori ezagutuko dute. Izan ere, gure gizartea asko aldatu da. Urte gutxitan gauza asko egin dira. Nik ezinduak etxean zituztelako herritik irteten ez ziren familiak ezagutu ditut”, amaitu du.

## Antxon Bolinaga: “Medikuntza ikasteko aukera izan nuen, baina gaixoekin harreman hurbilagoa izan nahi nuen”



Antxon Bolinaga bere bulegoko ate ondoan.

*Meet the parents* filmean Robert de Niroi lotsagarria iruditzen zaio bere suhia erizaina izatea. Beste bi entrega filmatu dituzte jada eta oraindik ez du bere matxismoa gainditu. Zorionez, gizartea pelikulako protagonista baino aurrerakoia da eta dagoeneko inor ez da asaldatzen bere erizaina gizonezkoa delako. Dena den, oraindik mutil gutxik hautatzen dute lanbide hau: ospitaleko Erizaintza sailean 304 lagunek lan egiten dute eta horietatik hamar bakarrik dira gizonezkoak. Antxon Bolinaga beasaindarrarekin eta Marian Amondarain legazpiarrarekin hitz egin

dugu gaiari buruz. Erizaintza saileko zuzendariordeak dira biak.

Bolinagak oso argi du zein den bere lankide ia guztiak emakumezkoak izatearen arrazoia. “Erizaintzaren ardura nagusia zainketa da eta historikoki zainketa emakumeen lana izan da. Etxean ama izan da zaindu gaituena. Rol hori osasun arlora pasatu da. Nik dakidala hasieran erizaintzaz mojak arduratzen ziren”.

Amondarain iritzi berekoa da. Bere lanbidean geroz eta gizon gehiago daudela dio, baina oraindik oso gutxi dira. Horietako bat Bolinaga da. Bere istorioa benetan berezia da, seminariotik

Erizaintza fakultatera pasatu baitzen. “Medikuntza ikasteko aukera izan nuen, baina gaixoekin harreman hurbilagoa izan nahi nuen. Seminarioan fraide gaixoak zaintzea tokatu zitzaidan eta zainketa lana gustukoa nuen”.

Emagina izan nahi zuen, baina ez zioten utzi. “Madriken ikasi nahi nuen, toki onena zela uste bainuen. Ez ninduten onartu. 80ko hamarkada hasiera zen. Dena den, garai hartan emagintza ikasi zuten gizonezkoak ezagutzen ditut. Beste eskola batzuetan ikasi zuten, noski”.

Madriken onartu ez zuten, Erizaintza ikastea erabaki zuen. Etxekoek ondo hartu zuten. “Nire aitak sekula ez zidan ezer esan: ez 11 urterekin seminariora joatea erabaki nuenean, ezta Erizaintza ikastea erabaki nuenean ere. Amak nahia-go zuen medikua izatea eta oraindik medikua izan behar nuela esaten dit”.

Izan ere, osasun arloan lan egiten duten gizonezko gehienak medikuak dira. Baina aurki alor hau emakumezkoena izango da ia guztiz. Medikuntza fakultatean dagoneko gehiengoak dira eta Erizaintza fakultatean zeresanik ez. Rolan inposatzeak guztioi kalte egiten digu, noski. Amondarainek delineaizale ikasi zuen, baina ez zioten lanik eman emakumezkoa zelako. “70eko hamarkada erdialdean enpresak ez zituzten emakumezkoak hartzen lan horretarako. Garai hartan gure lan aukera murrizta zen: ile-apaintzaile, dendari eta erizain bakarrik izan gintezkeen. Autonomia izan nahi nuen eta Erizaintza ikastea erabaki nuen”.

Bere lana oso gustukoa du. Baita Bolinagak ere. “Anaia-arreben artean zaharrena naiz eta umetan besteez arduratzen nintzela gogoratzen dut.

Beharbada horrek eragina izan zuen”. Ikasketak Donostian egin zituen. Ordutik, emakume artean bizi da. “Gizonezkoen mundu batetik, seminariotik, emakumezkoen mundura pasatu nintzen. Egokitu beharra izan nuen. Gizonezkoen inguratuta egotea gauza bat da eta emakumezkoen inguratuta egotea beste bat. Euren portaerak eta pentsaerak nigan eragina izan dutela uste dut. Nik ikusten ez ditudan gauzak ikustarazten dizkidate. Batzuetan egoera zehatz batean Marianek zer egingo lukeen pentsatzen dut, adibidez. Gizonezkoak arau zaleak gara eta beraiek ñabardura gehiago dituzte. Bata eta bestea ez dira txarrak”.

Emakume artean ondo moldatzen dela dio, nahiz eta batzuetan ez den erraza eurekin asmatzea... “Komentario batek egun batean ez du inongo garrantziarik eta hurrengoan bai. Zer gertatu ote da? Guk ere egun txarrak ditugu, baina ez dugu jarrera aldatzen. Beharbada behar baino gehiago hitz egiten ari naiz”.

Amondarainek erantzuna prest du. “Emakumezkoak lanetik kanpo lan asko ditugu: ama, amorantea, alaba... Lan munduan sartu gara, baina gure amek egiten zituzten lanak egiten jarraitzen dugu. Hori dela eta, askotan nekatuta heltzen gara lanera. Nire senarrak lehen baino askoz ere lan gehiago egiten du etxean, baina oraindik asko falta zaio nire mailara heltzeko. Nik semeak ditut eta euren emazteei ez zaie tokatuko guk bezainbeste lan egitea”.

Bolinaga iritzi berekoa da eta argi utzi nahi du batzuetan bere lankideak ulertzeko arazoren bat duen arren fakultatean zein ospitalean oso ondo hartu zutela. “Gainontzeko ikasleak baino apur bat

zaharragoa nintzen eta gainera seminarioan ikasitakoa nintzela nabari zela uste dut. Hori dela eta, delegatu hautatu ninduten. Ez zitzaidan ondo iruditu, ehun neska eta hamar mutil baikiñen, baina horrek argi erakusten du ondo hartu nindutela”. Amondarainek argi du zergatik hautatu zuten delegatu eta zergatik den orain ospitaleko Erizaintza saileko zuzendariordeetako bat. “Gure lanbidean diziplina beharrezkoa da. Emakumeak oso ordenatuak gara, baina seminarioan ere diziplina nagusi da. Handik pasatu izana lanbide honetarako mesedegarri izan zaio”.

Langile fina da eta arazo bakarra izan du gizonezkoa izateagatik. “X izpitan lan egiten nuen. Pazientea moja zen eta ni ikusi ninduen zura eta lur gelditu zen. Arropa kendu aurretik erizaina emakumezkoa izatea eskatu zuen eta ez nion inongo eragozpenik jarri”. 20 urtetan arazo bakarra izan duenez, argi dago erizain gizonezkoek gizartearen onospena dutela. “Beharbada batzuei deigarria irudituko zaie gizonezkoa izatea, baina gero eta gutxiago direla uste dut. Rol banaketa desagertzen ari da. Sekula ez naiz diskriminatua sentitu, ezberdina baizik”.

Dena den, emakumezkoen zainketa lanean bereziki abila direla dio. “Esan behar dudana beharbada astakeria da, baina eurak amatiarrak dira eta emakumezko baten zainketa lanaz gehiago fidatzen gara guztioi. Xamurragoak dira”. Bere lankidea iritzi berekoa da. “Lehen aipatu dugun bezala, emakumea izan da beti zainketa lanez arduratu dena: seme-alabak, anaia-arrebak... zaindu ditu. Gure lanaren funtzio nagusia zainketa da eta emakumeok harreman estuagoa dugu horrekin”.

## Andres Mena: “Haurrekin lan egiteko emakumeak egokiagoak direla uste izan da, baina pentsaera hori aldatu behar dugu”

Tradizionalki “emakumezkoena” izan den beste alor bat Haur Hezkuntza da. Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo edo Unibertsitatean irakasleak gizonezkoak izatea arrunta da, baina haur txikiekin emakumeak aritzen dira batik bat. Dena den, gero eta mutil gehiago aurkitu daitezke. Horietako bat Andres Mena Gainzuriko irakaslea da.

Lehen Hezkuntzan eta DBHn lan egin du Haur Hezkuntzan hasi aurretik. “2006an, etxean umeak izanda, Haur Hezkuntza ikastea erabaki nuen. Araban nengoen lanean eta lankide batek konbentzitu ninduen. Eskoriatzan ikasi nuen eta berehala lanean hasi nintzen. Honakoa hirugarren ikasturtea dut. Domingo Agirren hasi nintzen eta orain Gainzurin lan egiten dut”.

Eskoriatzan gizonezko gutxi zirela dio. “80 bat ikasle ginen eta horietatik hamar bat bakarrik gizonezkoak. Oraindik ere emakumezkoak dira gehiengoa. Ikasleen adinak gora egin ahala, gizonezko gehiago ikusten dira: Lehen Hezkuntzan Haur Hezkuntzan baino gehiago, DBHn gehiago, Unibertsitatean gehiago...”.

Menak ez daki zein den arrazoia. “Beti pentsatu izan da haurrekin ibiltzeko emakumeak egokiagoak direla, baina pixkanaka pentsaera hori aldatu beharra dugu. Horretan gabilta”. Haurrek ondo hartu zuten, baina maisu deitzea kostatu egin zaio. “Hasieran andereño deitzen zidaten. Kurioa zen. Orain maisua gora eta maisua behera ibiltzen dira. Esperientzia oso polita izaten ari da. Etxean bi ume dituda-



Andres Mena bere ikasleekin.

nez, txikiekin lan egitera ohitua nago. Pazientzia pixka bat behar da eta maitasuna eman behar zaie”.

Gurasoek ere ondo hartu zuten, baina emakumezkoekin baino gehiago eskatu zitzaizkion uste du. “Inork ez zidan ezer esan, baina niganako konfiantza falta apur bat nabaritu nuen. Komunikabideetan pedera stia kasu asko azaltzen dira eta horrek beldurra sortu duela uste dut. Dena den, dagoeneko gurasoak ere nirekin oso gustura daudela uste dut”.

Lankideekin ere pozik dago. “Asko laguntzen didate. Aurten 3 urtekoen gelan nago eta ia, berriz, 2 urtekoen gelan lagundu nuen. Haur-oihalak aldatu behar nituen eta inongo arazorik gabe egin nuen: gizonezkoak emakumezkoak bezala lan egiten dugu. Emakumezkoak lantegietan ezin dutela lan egin uste dugu, baina eurak ere gai dira. Gogoia izatea da kontua”. Etxekoak eta lagunak iritzi berekoak dira eta denei normala

iruditu zitzaizkion Haur Hezkuntzan lan egin nahi izatea.

Dena den, ba omen dago gauza arruntzat jotzen ez duen jendea. “Batzuek denok homosexualak garela uste dute, baina horrek ez du zentzurik. Ume txikiekin egotea emakumezkoen gauza dela uste dutelako gertatzen da hori. Baina hori aldatu beharra dago. Haurrei gizonezkoak ere heziketan zeresana dugula irakatsi behar diegu. Gero eta gehiago gara Haur Hezkuntza ikasten dugun gizonezkoak. Gainzurin bi gizonezko gara eta bederatzik emakumezko”.

Haur Hezkuntzan lan egitea merezi duela uste du. “Haurrekin lan egitea oso pozgarria da. Lehen Hezkuntzan eta DBHn lan egindakoa naiz eta Haur Hezkuntzak askoz ere poztasun handiagoak ematen dituzte. Hemen ez dago bihotzerrerik. Eskolara triste etorri gero haurrek tristura desagerrarazten dute. Lehen Hezkuntzan eta DBHn ez da halakorik gertatzen”.



## Samir Kouhal eta Martin Iglesias: “Emakumezkoak zein gizonezkoak adinekoak zaintzeko gai gara, izaera da kontua”

Bolinagak eta Amondarainek esan bezala, zainketa lanaz emakumeak arduratu dira beti. Ildo beretik, Iturriotzek alor horretan gizonezko gehienek oraindik ez dutela nahikoa egiten aipatu du. Hala ere, badira noski gurasoez arduratzen direnak eta baita geriatrian lan egiten dutenak ere. Samir Kouhal eta Martin Iglesiasek, adibidez, Zumarragako geriatrikoan lan egiten dute. Hiru mutil eta hogeitik gora emakume dira.

Kouhal marokoarra da eta 29 urte ditu. Turismo gidari, sukaldari eta zerbitzari lanetan aritu zen geriatrian hasi aurretik. “Nire emazteak ere alor honetan lan egiten du eta jendeari laguntzea asko gustatzen zait. Sei hilabeteko ikastaroa egin nuen eta lanean oso gustura nago”.

Ez zuen inongo erreparorik izan, baina agure batzuei kostatu egin zitzaizkien gizonezko baten zainketak onartzea. “Arraroa iruditzen zitzaizkien, baina denborarekin ohitu egin dira. Tabua hautsi egin da”, aipatu du. “Lasai egoteko esaten diet, ni ere emakume batetik irten nintzela. Gizonezkoek ez die erreparorik ematen emakume batek zainketa, alderantzizkoa zergatik izan behar da ezberdina?”, gehitu du Iglesiasek. Zaharren senitartekoek eta lankideek ere ondo hartu zituzten. “Emakumezkoek zein gizonezkoek lan hau ondo egiteko gai gara, pertsonaren izaera da garrantzitsuena”.

Martin Iglesiasi dagokionez, Caceresen jaio zen, baina aspalditik Zumarragan bizi da. Forjan lan egiten zuen, Irimo enpresan. “Egoera oso txarra zen eta betidanik



Samir eta Martin geriatrikoan.

arlo honetan lan egin nahi izan dudanez, lana uztea erabaki nuen”.

Bokazioa zuen, baina gaztetan ez zen ausartu. “Ezkonduta egin nintzen, alaba izan genuen... eta dirua behar genuen. Ezin nuen lantegiko lana utzi. Krisiarengatik ez balitz beharbada bertan jarraituko nuen. Nire ametsa betetzen ari naiz. Lan hau zoragarria da. Orain nire helburua prestakuntza hobetzea da, hobeto lan egin ahal izateko”.

Gizonezkoen lan batetik emakumezkoen lan batera pasatu da. “Horrek amorru handia eragiten dit. Lanak ez dira gizonezkoenak eta emakumezkoenak. Topikoak hautsi egin behar dira. Jendeari gustatzen zaiona egiteko aukera eskaini behar zaio”. Berak familiaren babesa izan zuen fabrika utzi eta geriatria ikastea erabaki zuenean. Ikusten den moduan, biek hartutako erabakia zuzena izan zela uste dute. “Hemen pertsonekin lan egiten dugu eta guztiek zer edo zer ematen digute. Egun batean

haserre egon daitezke, baina hurrengoan musuak ematen dizkigute. Buru-argitasun uneetan asko ematen digute. Batzuek ezin dute ulertu lan hau horren gustuko izatea, baina engantxatu egiten du”.

Bera ere oso gustura dago lankideekin. “Beldur apur batekin etorri nintzen, baina oso ondo hartu gaituzte. Askok lagundu digute eta neure ustez gizonezkoak ere egotea eskertzen dute. Noizean behin pisu handia duen norbait mugitzeko laguntzea eskatzen digute, adibidez. Gure artean konfiantza handia dugu. Lotsarik gabe hitz egiten dute euren gauzez”.

Kouhal eta Iglesias oso gustura daude, baina oraindik oso gizonezko gutxi ausartzen dira adinekoen zainketan lan egitera. “Beharbada askori emakumeen lana dela iruditzen zaie. Dena den, langabezia dela eta, gero eta gizonezko gehiago ari dira geriatria ikastaroak egiten. Hori bai, horrekin ez da nahikoa: gustukoa ez baduzu lan honek gain hartuko zaitu”.

**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

**ATA**

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

**MURUA**

Oinetako konponketa

Larruzko erroren konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**JAVIER Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

**Egumendi, S. L.**

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com

**KEROS**

Ekarri zure argazkiak eta nahi  
duzun moduan aterako ditugu:  
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

**BIONA**

**ARROZTEGIA**

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

**SUTAN**

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

**PREMANK**

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com

**PLAZAOLA**

**ITURGINTZA**

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 13 70  
Fax: 943 03 75 68

**Lanbiza**

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

**HERCE**  
Electricidad, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones  
**MENDIOLA**

Labeaga, 9 Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@mendiola.com  
www.cmendiola.com

**asirauto**

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu  
943 72 59 22  
659 67 89 79

**Darmanki**

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU  
☎ 943 72 25 13

**TABERNA**

**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

**belar-zain**

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**ALEX-BIBOIA**

alejandra albisua

☎ 943 72 52 22  
Soraluze, 6 - Zumarraga

**IKER**

**SUKALDEAK**

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU  
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE  
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

**julita**

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga  
Tel. 943 72 05 62

Herri Aldizkaria

**Otamotz**

Iker - 647 319 775 - beasain@iragarri.net

TOKI APROPOSA  
DUZU HAUXE  
ZURE IRAGARKIA  
JARTZEKO

# Otamotzen aro berria

*Urte berriarekin batera berrikuntzak heldu dira Otamotz herri aldizkarira eta otamotz.com atari digitalera: Urretxu eta Zumarragako Zintzo Mintzo euskaltzale taldearen bi komunikabide hauek Goierriko Hedabideak enpresaren eskuetara pasatu dira. Enpresa hau Berria Taldearen (lehen EKT) babesean sortu zen 2004an eta Goierriko Hitza egunkaria eta Goierritarra aldizkaria argitaratzen ditu; honek kudeatuko du Otamotz ere hemendik aurrera.*

Arrazoiak bi dira. Alde batetik, euskal komunikabideentzat garai gogorak dira eta indarrak batzea komeni da. Bestetik, bi egitasmo hauek martxan jartzeko eta aurrera ateratzeko Zintzo Mintzo elkarteko lagun askok musu truk lan egin dute urte luzeetan zehar eta atsedena merezi dute. Euskaltzale elkarteak Goierriko Hitzaren sortzaile eta kideetako bat da eta Goierriko Hedabideak enpresak bere ateak erabat ireki dizkio Otamotzi. Horri

esker Zintzo Mintzok zama arindu du eta egitasmo berriak abian jarri ahal izango ditu eta aldizkariaren eta atari digitalaren etorkizuna bermatu da.


Bi komunikabide hauen edukiari dagokionez, oraingoz ez da inongo aldaketarik izango. Irakurleei dagokizuenetz, Zintzo Mintzoko bazkideen eta aldizkariaren borondatezko harpidedunen kuentak berritu egin dira. Beheko txartelean ageri dira 2011ko kopuruak. Orain arte

Otamotz aldizkaria etxean jasotzeagatik deus ordaindu ez dutenek, Zintzo Mintzoko bazkide edo harpidedun egin beharko dute, aldizkaria jasotzen jarraitu nahi badute.

Besterik gabe, mila esker urte hauetan guztietan aldizkaria eta atari digitala martxan jartzen eta Urretxu eta Zumarragan erreferentziazko komunikabide bilakatzen lagundu duzuen guztiei.

*Otamotzeko erredakzio kontseilua*

Egin harpidedun		
<b>Otamotz</b>	OTAMOTZ <input type="checkbox"/> urtean 20 euro	ZINTZO MINTZO <input type="checkbox"/> urtean 25 euro
		OTAMOTZ+HITZA <input type="checkbox"/> urtean 75 euro
• Izen-abizenak:		• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:	
• Helbidea:	• Herria:	
• P.K.:	• Tel.:	
• Posta elektronikoa:		
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal



## Reglamentuzko baloia



«REGLAMENTUZKO BALOIA». Horixe zen, maiuskulekin, gure garaian mutiko bati Lehen Jaunartzean egin ziezaioketen oparirik onena. Izan ere, objektuaz harago botere zerutiar moduko bat ematen zion baloiaren jabeari opari horrek: bere taldean jokalaririk onenak izateko aukera, partidaren luzapena bere nahiera luzatzeko ahalmena eta jokaldi polemiko guztiak bere aldekoak izatea, Ikastolako Curtis harri koskor haiekin jokatu behraren mehatxupean.

Gaude, denbora gehiegi daramagula gurea ez den baloi batekin jokatzeko, hori jokatzeko uzten digutenean. Urrutiko kontuekin aritu beharrekin herrian bertan aurkitu dugu horren adibide garbi bat, Antio eta bere jatetxearena alegia. Askoren ustetan garaipenaren gola joko kanpo garbian sartutakoa izan da, baina garai bateko *moviolaren* aukera baino ez digute eskaintzen. Hau da, partida amaitutakoan epaileak arrazoi ote zuen

tabernan eztabaidatzearena. Izan ere, egun gutxitan “Antioko interpretazio zentroaren interpretazio zentroa” —terminoa otamotz.comeko erabilzaile bati lapurtu diogu— irekiko omen dute eta etxetan 4.000 triptiko banatu, hori bai, partidako emaitzak ihes egingo ez diela ondo ziurtatu ostean. Ez al zen logikoagoa hori guztia erabakiak hartu aurretik egitea, hala, marrazaina zuzen bazegoen hainbat hika-mika eta esandako txorrada asko —gureak lehenak— aurreztuz? “Baina baloia nirea da”.

Zorionez, gurea bezalako harrizko zelaietan belardietan jokatzeko egindako baloiak gastatu egiten dira eta aldatu beharra izaten da. Edo bestela beti dago unerik txarrean pasatzen den kamioiren bat —gure herrietan gainera kutsaduraren arduradun nagusiak dira—. Eta halakorik ezear jende askok iltzeak zorroztera eraman dituela esan digu txoritxo batek.

## Zer iritzi duzu tabernetan erretzea debekatzeari buruz? Zeintzuk dira bere alde onak eta txarrak?



Unai Izagirre



Tabernariak askatasuna izan beharko lukete euren tabernetan erretzen utzi edo ez erabakitzeko. Jende askok tabernetara joateari utzi dio. Erretzea debekatu dute, baina saltzen jarrai-tzen dute. Hipokrisia handia dago. Bestalde, elkarte gastronomikoe-tan erretzea debekatzea norberaren etxean erretzen debekat-zea bezala da. Toki pribatuak dira eta!

Jesus Alvarez



Erretzaile ohia naizenez eta seme-alabak ditudanez, legearen alde nago. Hori bai, lehen etxera ke usainarekin itzultzen ginen eta orain frijitu usainarekin. Onartu beharra dut kanpoan erre beharra txakurkeria dela. Gainera, erretzen ari den jendeak sortzen duen iskanbilak taberna gainean bizi diren bizilagunei kaltea eragiten die. Onena denok erretzeari uztea litzateke.

Fernando Modroño



Beraiek onartu dute legea eta guk zer egingo dugu ba? Gaizki iruditzen zait. Zergatik ez dute zuzenean tabakoa kentzen? Hori ez zaie interesatzen, ordea, beraientzat diru iturri garran-tzitsua baita. Aurki kalean erretzea ere debekatuko dute.

Roberto Fragua



Legearen alde nago. Ez dut sekula santan erre eta bizitza osoan tabernetatik kanpo hartu behar izan ditut poteak kea dela eta. Egia esan, ezin dut tabako kea jasan.

## Gaia: Beti mugan.

### Doinua: Haize hegoa, gau epela.

Aitor Albistur



Baserriko atarian,  
iluntzeko hamarrak  
direla gogorarazi  
dit ordulari zaharrak.  
Iluntasuna argitzen  
ari diren izarrak  
aspaldi bihurtu dira  
nire lagun bakarrak.  
Ez ahaztea dakarrenez  
gogoratu beharrak  
nirekin behintzat lan zaila  
du memoria txarrak,  
oroitu nahia berpizten  
baitit euri langarrak...

Hamabi ginen etxean  
eta lege zaharrear  
oilarrak kantatzerako  
hasten ginen larrean,  
ukuiluan zein baratzan,  
norbere beharrear,  
zorionsu izan nahian  
gure zoritxarrean.  
Egunsentia amaitzen  
zen ilunabarrean,  
baina, antzeman zitekeen  
denon irribarrean  
sendi batu bat ginela  
beharraren aurrean.

Gerra hain da traidorea,  
gerra hain da isila,  
ohartzerako etxean  
sartu zela Zibila.  
Aitak eta bost anaiek  
eskuetan fusila  
zutela alde egin zuten,  
diotenez Madrila...  
Urtebete eskasean,  
hau da hau iskanbila,  
famili oso bat zena  
zegoen erdi hila!  
Geroztik alferrik nabil  
euren gorpuen bila.

## iritziz iritzi


Idoia Luzuriaga



## Zein edukik emango dio bizia eraikin honi?

Antion egitekoa den interpretazio zentroaren inguruan zeresan ugari izan da. Antiok zumarragarrrontzat duen esanahia izango ez balu agian aspertuta geundeke! Baina duela gutxi irudi zehatzagoa egiteko aukera izan dugu. Izan ere, Zelai Ariztikiko erakusketara gerturatu ez denak ere, buzoian jaso du interpretazio zentroa nola izango den irudia. Foileto moderno eta argia da. Grafikoki polita dela esango nuke. Baina zur eta lur geratu naiz. Eraikina naturarekin bat datorren edo ez alde batera utzita, tabernak hogei edo hogei mila lagun hartu behar dituen eztabaidatzen sartu gabe, horren mantenuak sortuko duen gastua alde batera utzita, ezin dut ulertu halako eraikinak zer gordeko duen, halako erakusketa aretoetan zer zin-

tzilikatuko duten, halako ikus-entzunezko aretoan zeri buruzko saioa izango den eta horri guztiari zerk edo zeinek emango dion bizia urteko 365 egunetan zehar. Antiok gudan sortzen duen sentimendu hori esentzia sortuta, pote batean gorde daiteke, baina nekez egingo dugu sentimendu horretatik erakarpen turistikoa. Ez nuke, hemendik urte batzuetara, herdoilak darion gune hutsa eta hotza izaterik nahi, honek Antioko benetako xarma xahutuko luke eta. Eta ez dut pentsatu nahi horrelakoa egitearen arrazoia "beste herrietan ere badagoelako" argumentu pobrearen menpe egingo dutenik. Horregatik zaila egiten zait Antio "hainbeste" maite dutela diotenenek berarentzat horrelakorik egin nahi izatea.



### Blanco nocturno

Ricardo Piglia

Ixiltasunak alde sortzailea izan dezake eta Ricardo Piglia, hamalau urteko ixiltasunaren ondoren, guregana dator ustezko polizi-lan berri batekin. Ustezkoa soilik, lan honek genero hau gailentzen baitu. Toni Duranen hilketa gertatu ondoren argentinar Panparen herrixka batean ikerketa lanak hasten dira; narrazioaren ildoak bilakatuko diren lanak, hain zuzen ere. Polizi-generoan nagusi izaten da ardatz logikoa, baina Ricardo Pigliak

Blanco nocturno-n beste ikuspegi batetik abiatzen da eta bideratzen gaitu. Itxuraz paketsua den gizarte baten bizioek eta korrupzio gordinek ordezkatzan dute generoaren ohiko ardatza. Sendi-harremanek, infernu hutsa, islatzen dute herri baten bizi-modua non aintzinetatik datozen engainuak, gezurrak eta diruzalekeria diren gainbehera doan orainaldiaren oinarriak.

*Rikardo Babarro*


### Un día en el mundo

Vetusta morla

Musika taldeei ez zaizkie konparaketak gus-tatzen, baina Radiohead-en antza duzula esaten badizute, ba... Madrildarren doinu erakargarriek badute indarra. Badute pasioa. Sedukziorako presta zaitzakete. Amorrua kanporatzeko atak irekiko dizki-zute, edo negarrerako bidea erraztuko dizu-te. Emozio guzti-guztiei haien txokotxoa egin zieten *Un día en el mundo*-ko (2008) abestietan. Egitura epelak batzuetan, leho-

rragoak tarteka... Indie pop-rock-a, letra eder bezain irekiekin, baina rock-aren oina-rriekin, finean. Melodia ederrak, une inten-tsoak, mantsoagoak, norabide aldaketak... Gustuz eta modu dotorean jotako 12 abesti dauzka diska bikain honek. Hiruzpalau aipatzearen, *Copenhage* eder eta goxoa, *La cuadratura del círculo* basatia, *Sálvese quien pueda* bizia eta *Valiente*.

*Igor Susaeta*



### Buried

Rodrigo Cortes

Bejondeiola Rodrigo Cortesi! Ausarta izan delako, burua nekatu duelako eta tentsioan mantentzen gaituelako. *Buried* zein film den azaltzeko ez dira hitz asko behar: "hilkutxa batean bizirik lurperatzen duten tipo horren pelikula da". Lehenbizi esan behar baietz, film osoa kutxa barruan gertatzen dela, eta ez dela aspergarria egiten. Hor dago Cortesen meritu nagusia. Filmak kontatzen duena sinplea da: Paul Conroy kontratista

bezala ari da lanean Iraken, berak nola jakin gabe bahitu eta bizirik lurperatu dute hilkutxa baten barruan zehaztu gabeko leku batean. Arropa, kandela bat, telefono bat eta labana bat besterik ez daramatza soinean. Bateria agortzen ari da. Kandela agortzen ari da. Aire agortzen ari da. Itxaropena agortzen ari da. Bikaina. Martxoaren 11n Zelai Ariztin.

*ButaK 21 zineklub taldea*



▼  
Baviera.

Iker Igartua





# Toribio Kerejeta: Antioko azken seroraren semea

*Toribio Kerejeta Antion jaio zen, seroraren etxean hain zuzen ere. Azken zaharberritze garrantzitsua egin zenean bota zuten basilizari itsatsita zegoen etxe hura. Kamioilaria da lanbidez, baina herrian bere herri kirol zaletasunagatik da ezaguna batez ere. Azken urteotan horrenbesteko arrakasta izan duen gizon proba berreskuratu zuen, baina aurten lekukoa pasa nahi du.*



## **Zer diozu zure familiaz?**

Bai aitaren eta bai amaren aldetik gipuzkoar peto-petoak gara. Antion jaio nintzen: azkeneko seroraren semea naiz, Paula Zabaloren semea. Aita Atzerrekan jaio zen, Izazpi atzealde horretan, Uzti baserrian. Ama Goiburu baserrian jaio zela uste dut, baina etxea erre egin zitzaizen eta Antiora joan ziren.

## **Nola ezagutu zuten elkar?**

Aita Zumarragara etortzen zen lanera. Oinez. Lehenengo basoan lan egin zuen eta ondoren Sagaspe zerrategian: orain Zumarragako Eroski dagoen tokian. Seguru aski han ezagutuko zuten elkar. Aita Antiora ezkondu zen. Gero Orbegozon hasi zen lanean. Aitak Manuel Kerejeta zuen izena.

## **Antion bertan jaio zinen. Gutxi esan dezakete hori.**

Hiru anaia-arreba gara eta hirurok bertan

jaio ginen. 1975en jaitsi ginen Antiotik, gure etxea bota zenean. Asko maite dut Antio. Oroitzapen oso onak ditut. Taberna txiki bat genuen eta auzoko baserrietako jendea bertan elkartzen zen: Gurrutxagaazpikoak, Gurrutxagagoikoak, Aizpurukoak... Egunean bi aldiz joaten ziren: lehenengo ardiak eramatera eta gero jaistera. Litro erdi ardo eskatzen zuten. Orduan ez zen txikitorik eskatzen. Giro oso ona egoten zen. Baserri giroa. Han zaletu nintzen herri kiroletera. Beti zegoen apusturen bat: aizkorarekin, idiekin, harria jasotzen, segan... Gainera, Gurrutxagaazpiko Bixente probalari oso ona zen. Amaren lehengusua zen, baina guk osaba deitzen genion. Antioko bederatziruena aurretik idiak Santa Isabeletako proba prestatzera eramaten zituen: Belokiko buelta ematen zuen korrika idiekin. Beste bitxikeria bat ere oroitzen dut: garai hartan Antioko giltzak bi kilo inguru pisatzen zuen eta hura urrutien nork bota jolasten genuen.

**Kaleko jendea joaten al zen Antiora?**

Asko. Ikaragarri. Ez dago sinisterik. Gure etxean sagardo gozoa saltzen genuen eta udan 1.000 botella inguru saltzen genituen. Antioko zelaia bete-bete eginda egoten zen. Ez zen gaur egun bezala: garai hartan familia bakoitzak bere janaria eramaten zuen, tabernan edaria eskatzen zuten eta seme-alabekin eguna pasatzen zuten. Ehiztari eta mendizale askok ere Antion hamarretakoa egiteko ohitura zuten. Igandero, negu edo uda, 20 bat lagun elkartzen ziren. Eta orduan ez zegoen egungo zerbitzurik, e! Ura eta komuna, justu-justu zeuden. Inguru hartako lehen telebista gure tabernan jarri zen eta Brasilen jokatu zen munduko futbol tx-

pelketa bertan ikusi genuela gogoratzen dut. Apustu garrantzitsuren bat zegoenean, irratia topera jartzen genuen eta 20 bat lagun elkartzen ziren entzuteko.

**Asko laguntzen al zenioten amari baselizako lanetan?**

Baseliza amak garbitzen zuen. Guk lagundu baino gehiago endredatu egiten genuen. Bertan monagiloa izandakoa naiz.

**Zuen ama asko haserretu zen zuen etxea bota zenean.**

Hala da. Oraingo gorabehera dela eta, nik zer edo zer egitea besterik ez dut nahi. Horixe esaten diet bai alde batekoei eta bai bestekoei. Zein egitasmoren alde

*“Antioko elizako giltzak  
bi kilo inguruko pisua  
zuen eta umetan ea  
nork urrutirago bota  
jolasten genuen”*

nagoen galdetzen didatenean ez dakidala esaten diet, baina udaletxetik kolore gutietako jendea pasatu dela eta oraindik ez dugula ezer. Bidali gintuztenean obra hastera zihoala esan ziguten, baina 36 urte bete behar dira ordutik eta ez da ezer egin. Gure taberna itxi zenean hartu zuen indarra Arkaitzeta elkarteak. Ni ere bazkide egin nintzen.

**Nola gogoratzen dituzu haurtzaroa eta gaztaroa? Zer zaletasun zenituzten?**

Umetan txoriak harrapatzea eta haztea gustatzen zitzaigula gogoratzen dut. 18

bat urterekin kalera etortzen hasi ginen. Koadrila Zumarragako baserriar gehientsuenok eta Urretxuko batzuek osatzen genuen. Igande arratsaldetan elkartzen ginen: bueltatxo bat eman, neskei segika aritu, otartekoren bat jan... Gazte gehienek egiten zutena. Beranduago hasi ginen Goldenera joaten. Gu herrietako festetara joaten ginen: Gabiria, Beasain, Ordizia, Segura, Idiazabal, Zegama, Itsaso, Ezkio... Amorratuta joaten ginen. Ibarrik gora zegoen Gure Txokoa dantzalekura joateko ohitura ere bagenuen. Kantu janak ere egiten genituen. Gu baino zaharragoek, Sagaspekoak-eta, gure etxean kantu jana egiteko ohitura zuten eta haien eraginez hasi ginen gu.

**Kaleko neskekin ondo moldatzen al zineten?**

Hasieran geure antzekoekin ibiltzen ginen gehiago, baserri girokoekin.

**Eskola garaia nola gogoratzen duzu?**

Herrira jaisten ginen ikastera. Lehenengo egunetan amarekin joango ginen, baina gero bakar-bakarrik. Izeba Sabinaren etxean bazkaltzen nuen. Negu garaian zazpi urteko mutikoa Antioara bakarrik igotzea ez zen broma... Kanposantuari eta mutilzahar baten baserriari errespetu handia nien. Airean pasatzen nintzen haien paretik! Atzera begiratu eta beti itzalen bat ikusten nuen...

**Kaletarrek ondo hartzen al zituzten baserriarrek?**

Galdera ona egin duzu. Gu *los caseros boronos* ginen. Eskolan hasi nintzenean erderaz tutik ere ez nekien. Gure aita erdaraz oso gutxi zekiela hil zen. Gogorra izango da esatea, baina irakasleek *los niños de papa* hobeto tratatzen zituzten. Dena den, maisu eta maistra onak ere

izan nituen. Batzuen oroitzen oso ona dut: Juanita Gereta eta Medrano ahizpak, adibidez.

### **Zein eskolara joan zinen?**

Nazionaletara, Orbegozoren eskolara (Galeperra gainean) eta La Sallera.

### **Gaztelaraz gaizki egiteagatik ez al zenituen arazoak izan?**

Ez dut halakorik gogoratzen. Gaizki edo ondo, laister ikasi genuen erderaz. Baserritarra izateagatik jasandakoak hobeto gogoratzen ditut. Antiotik behera korrika lokatz pixka batekin zikindu eta barre egiten ziguten. Baserritar bat eskolara orraztu gabe joan zen eta maisuak *¿Qué has dormido, en el pajar?* esan ziola gogoratzen dut. Maisuaren helburua besteek guri barre egitea zen eta beldurrez joaten ginen. Ezkertia izateagatik ere gaizki pasatu nuela gogoratzen dut. Eskolan eskuinarekin idaztera behartzen ninduten eta horretarako liburu bat jartzen zidaten ezkerreko eskuaren gainean. Bestalde, behin eibartar batzuek kargu hartu zioten nire amari ezkerria erabiltzen uzten zidalako. Oso gaizki pasatu zuen. Xabier Agirrebengoaren aita nire alde jarri zen. Bera ere ezkertia zen eta Jainkoak bi esku biak erabiltzeko eman zizkigula esaten zuen.

### **Zer ikasketa egin zenituen?**

Ofizialtza ikasi nuen. Tornulari ibiltzen nintzen. Tailerrean oso gustura ibiltzen nintzen. Baina eskolarako gogo handirik ez nuen. Nire adineko batzuek ikasteko aukerarik ez zutela izan esaten dute. Nik, ordea, aukera izan nuen. Etxean ikasten jarraitzea nahi zuten, baina nik ez nuen nahi. Ia negarrez eskola utzi behar nuela esan nien. Aitak lana aurkituta irteteko esan zidan. Ikasteari uztea nahi ez zue-

Zumarragako sokatira taldearekin, makurtuta ezkerretik bigarrena.



nez, ez zidan batere lagundu lana bilatzen. EMA galdarategira joan nintzen, latsa handiarekin. Zenbat urte nituen eta gurasoek zer iritzi zuten galdetu zidaten. Ikasten jarraitzea nahi zutela esan nien eta ikasten jarraitzeko esan zidaten. Gogorik ez nuela erantzun nien eta hobeto pentsatzeko eta hilabete barru itzultzeko esan zidaten. Hilabetera itzuli nintzen eta lana eman zidaten.

### **Zer gehiagotan aritu zara?**

Kamioiarekin bakarrik. Krisia heldu zen eta galdarategia kooperatiba egin genuen, baina ez zihoala ondo iruditzen zitzaidan eta obratarako kamioia hartu nuen. Bost urte ibili nintzen harekin: Leizarango autobidea egiten eta Urola ibaia garbitzen, besteak beste. Ondoren, duela hamabost bat urte, Orbegozon kamioilari postua hartu nuen.

### **Zer moduz kamioilari lanean?**

Urola erreka obran eskapada latza izan nuen. Larunbat goiza zen eta Etxaniz

arma-denda parean izan zen. Lurra azpitik janda zegoen, kamioitik jaitsi nintzen uretan hondoratu nintzen eta igerian ez dakit. Zorionez, makinista desagertu egin nintzela konturatu zen eta behatz punta ikusi zuen. Hark atera ninduen uretatik.

### **20 urte daramatzazu dagoeneko kamioiarekin. Nola ikusten duzu zuen lanbidea?**

Oso gaizki. Hau ez bada aldatzen kamioilari gutxi geldituko da. Egun soldata txiki bat ateratzeko ere ez digu ematen. Kamioiak agoantatzen digulako agoantatzen dugu. Matxura dutenek ez dute konpontzen. Krisi hau batzuen mesede eta besteen kontra etorri da. Batzuk sekula baino diru gehiago egiten ari dira. Argia %10 igo da eta hori ixil-ixilik ordaintzen dute. Guri, ordea, ez. Bestalde, kamioilariak ez gara inor inor. Kamioia kargatzen gutxien balio dutenak jartzen dituzte. Hilean horrenbeste atera behar bada eta gauza gaizki badoa azken egunetan

hobeak jartzen dituzte. Horrek guri sekula-ko ordu pila galtzea suposatzen digu. 120 euroko faktura egiteko bost ordu behar ditugu kamioiarekin. Gehitu horri gastuak... Lotsagarria da. Toki guztietan gertatzen ari da hori. Negargurea ematen du. Lagun asko hipotekatuta daude eta bankua ultimatuma ematen ari zaie.

**Nolakoa da zure eguneroko lana?**

%90 Arcelorrentzat lan egiten dugu, baina denei zabalik gaude. Hemendik materiala atera, txatarra ekarri... Euskal Herri mailan ibiltzen gara: portura, Gasteiz eta Usurbilgo bezeroengana...

**Lan gogorra al da?**

Gogorra ez da, baina goizeko bostetan irteten gara etxetik eta gaueko hamarretan itzultzen gara. Mundu hau ezagutuko ez banu *hainbeste ordu pasatu eta ez dek soldatarik atera?* esango nuke. Esan bezala, itxoitzen denbora asko galtzen dugu. Eta bertan egon beharra dago zain... Lantegi batera joan eta papertxo ematen digute, baina ez digute esaten noiz tokatuko zaigun. Bazkaltzera joan gaitzkeen galdetu eta guk ikusteko esaten digute, txanda galtzeko arriskua dugula. Komunikazio falta handia dago.

**Zuen lanak gauza onak ere ba al ditu?**

Bai, baina gero eta gutxiago behar dugu gure artean haserretzeko. Giroa petraldu egin da.

**Garai batean gehiago al zineten?**

Bai. Goi Garraioak taldean 47 gara, baina 30ren bat gaude martxan. Garai batean 60 bat izan ginen. Beste enpresa bat eta partikularrak ere badaude. 100 bat kamioi aritzen dira Arcelorrentzat.

**Zuen artean elkartasunik ba al da?**

Hor dago gure akatsa. Greba egin edo prezio zehatz bat ezartzen dugunean, beti

azaltzen da hori hausten duen baten bat. Gainera, gasoila garesti dago, errepide guztietan bidesariak kobratu nahi dituzte...

**Kamioiak beharrezkoak dira, ordea.**

Askok dakien gizon batek kamioiarekin Sevillara joatea eskaini zigun. Karga trenean bidaltzeko esan genion, baina kamioia erabiltzea hobeto zetorkiola esan zigun. Trenbideak lantegietaraino egingo balituzte, tira, baina lantegitik geltokira eramanez, bertan kargatu... Ordu asko behar dira eta garestia da.

**Kamioilari lanean luzaro jarraitzeko asmoa al duzu?**

Gogo handirik ez dut. Orain arte 61 urterekin aurrejubilatzeke aukera genuen, baina azken aldaketan ondoren ez dakit zertan gelditu den. Lehenbailehen erretiratu nahi dut.

**Zer egin nahi duzu erretiratutakoan?**

Eskiatzea dezente gustatzen zait.

**Antioko seroraren semearen afizio nagusia eskia izatea deigarria da.**

26 bat urte nituenean, larunbat batean, Txindoki tabernan Aldundiak Formigalera antolatutako irteera baten kartela ikusi genuen. Izena eman genuen eta gaur arte. Ikaragarri gustatzen zait eskiatzea. Emazteari ere gustatzen zaio. Jacan etxea erosi genuen eta bertara joaten gara. Nafarroara ere joaten gara, emaztearen gurasoak hangoak baitziren: Etxabarri herrikoak. Animaliak ere asko gustatzen zaizkit, baratzea baino gehiago. Txikitik ikusitakoa: oilasko batzuk hazi... Sano jaten saiatzen naiz.

**Herri kirolak ere gustuko dituzu.**

Hala da. Ez naiz asko aritu, baina ikustea beti asko gustatu zait. Sokatiran ibili nintzen, Zumarragako taldean. Euskadiko txapelketan parte hartu genuen.



Gurasoekin eta Juan Mari eta Miren anaia-arrebekin.

**Azken urteotan, berriz, Zumarragako gizon-proba taldeaz arduratu zara.**

Duela 30 bat urte koadrilen arteko saioa egin genuen eta berreskuratzeko gogoan nuen. Antiora jotzeko ohitura dut eta inguru hartan gazte koadrila polita zegoela iruditu zitzaidan. Herri kirolak gusta-tzen zaizkie, gainera. Mingain urdinaren gaitza azaldu zenean idi-probak debekatu zituzten eta gizon-proba egitea proposatu nien. Harria mugituko ez zuten beldur ziren. Ondo mugitu zuten eta animatu egin ziren. Lehiaketek arrakasta izan dute, baina asko kostatzen da taldea mantentzea. Ardura uztea noala esan diet. Denbora behar da eta jende asko. Batzuk gogo handiarekin daude oraindik, baina beste batzuk nekatu egin dira.

# Edu Reguero: “Sexu kontuan gizarte irekia dugula uste dut”

*Edu Reguero Arrasaten jaio zen, baina Zumarragara etorri zen gizartetik at gelditzeko dauden gazteentzat hezitzaile lana egitera eta bertan bizi da. Urtarrilean sexologia kontsulta ireki zuen Eliz-Kalen. Gai horri buruz hitz egin du Otamotz aldizkariarentzat.*



Edu Reguero Urretxuko Labeaga kalean.

### Zenbat denbora daramazu Urretxu eta Zumarragan?

Duela bost bat urte etorri nintzen Goierrira gizartetik at gelditzeko arriskuan dauden gazteekin lan egitera. Azkenean hemen gelditzea erabaki nuen.

### Zer ikasketa dituzu?

Soziologia ikasi nuen Leioan. Ez dut hezitzaile ikasketarik. Ondoren, Madrilen Sexologia graduondoko ikastaroa egin nuen. Europako beste toki batzuetan Sexologia lizentziatura dago, Alemanian eta Belgikan esaterako, baina Estatu espainiarrean ez. Estatuan masterrak eta graduondokoak bakarrik daude.

### Horrek sexu arloan herren gabiltzala esan nahi al du?

Noski. Atzeratuta gaude. Beste gizarte batzuetan Sexologiak legitimitate handiagoa du. Hemen gauza berria da. Dena den, gero eta Unibertsitate gehiagok eskaintzen dituzte graduondokoak. Dagoeneko hamaika edo hamabi dira eta duela urte gutxi bizpahiru bakarrik ziren.

### Zergatik ikasi zenuen sexologia?

Arrazoi pertsonalengatik izan zen. Argitzea lortzen ez nuen lauzpabost zalantza nituen eta graduondokoaren lehen urtean dagoeneko bizpahiruren erantzunak lortu nituen.

### Zer esan zizuten ezagunek Sexologia ikasi behar zenuela aipatu zenienean?

Batzuek txantxetan hartzen dute gai hau eta eskola praktikoei eta Madrilen igarotako asteburuei buruz galdetzen zidaten. Beste batzuek gai honi buruzko ezagutza handiagoa dute eta badakite ekarpen handiko zientzia iraultzailea dela: gizakiaren sexualitatearen nondik norakoak azaltzen ditu, bai teorikoki eta baita terapia moduan.

### Zer ikasi zenuen graduondokoan?

Bi urtekoa da eta gizonezkoak edo emakumezkoak zergatik sentitzen garen, nola desiatzen dugun, nola joka-tzen dugun... ikasten da. Hori guztia ikuspuntu sexologikotik: sexua aberasgarria den zer edo zer bezala ikusita, ez arriskutsuztat hartuta. Lehen belaunaldiko sexologo batek esaldi oso egokia bota zuen: sexualitatean landu daitezkeen aldaerak senda daitezkeen gaitzak baino gehiago dira. Zera esan nahi

*“Sexologia errekurtsio*

*gehienak hirietan*

*daude, baina*

*herrietara ere*

*iritsiko dira”*

zuen: arautik irtetea ez dela gaixotasuna baizik eta berezitasuna.

### Madrilen espero zenuena aurkitu al zenuen?

Egia esan, banekien zer aurkituko nuen. Joan aurretik Estatuan dagoen eskaintzari buruzko informazio zabala lortu nuen. Sexologia eskola ezberdinak daude: batzuk medikuntzatik gertu daude, beste batzuk psikologiatik hurbil eta hau, berriz, sexologiko hutsa da. Arlo honetan lan egiten dugun euskal herritar gehienok adar honetakoak gara. Egia esan, ikasketak nik espero baino hobek izan ziren.

### Berriki kontsulta ireki duzu. Zergatik Zumarragan eta ez Arrasaten?

Lehenik eta behin, arrazoi praktikoengatik:

Zumarragan bizi naiz eta erosoagoa zait hemen lan egitea. Bestalde, kontsulta bizi naizen toki berean irekitzea ausartagoa iruditzen zait. Gainera, Arrasateko Udalak primeran lan egiten duen aholkularitza zerbitzua du. Sexu hezkuntza oso ondo lantzen du bai eskoletan eta bai partikularrekin. Dena den, terapia arloa ez dute horrenbeste lantzen.


### Inguru honetan gabezia handiagoa da, beraz.

Ez dago antzerako ezer. Lehenik eta behin, terapia eskaintzen dut sei edo zazpi saiorekin konpontzen diren arazoetarako: eiakulazio goiztiarra, inpotentzia, baginismoa, anorgasmia, desio gabezia... Aholkularitza ere eskaintzen dut. Hamar bat saiotan pazienteak nahikoa informazio lortzen du. Zerbitzu honek orientazio sexualarekin lotutako zalantzak argitzeko balio du batez ere. *Homosexuala ala heterosexuala ote naiz?* galderari erantzuteko adibidez. Hirugarren zerbitzua hezkuntzarekin lotuta dago. Eskolekin eta guraso elkarrekin lan egin nahi dut eta udaletxetan nire eskaintza aurkeztean ari naiz.

### Norbera bizi den herrian sexologo lana egitea ausarta dela esan duzu. Eta norbera bizi den herrian sexologoaren kontsultara joatea?

Batzuek naturaltasun osoz ikusten dute eta dentistarengana joaten diren moduan etortzen dira. Gainera, ez da dentistarengana joatea bezain mingarria. Lotsatiei deitzeko eta informazioa eskatzeko esan nahi diet. Nire telefono zenbakia 630 287 321 da. Konfidentzialtasuna bermatzen dut, noski, eta tokia diskretua da. Gainera, bada kontu hauek naturaltasunez har-

Bikote eredu ezberdinak.



tzeko garaia. Sexologoarengana joatea ez da delitua. Denok ditugu zalantzak eta zailtasunak bizitzan zehar.

### **Nola ikusten duzu Euskal Herriko gizartea sexu kontuan?**

Topiko asko daude eta ez ditut atsegin. Gizarte aberatsa eta irekia dela uste dut. Nekazal munduaren eta hirien artean aldea dago. Bizitzeko modu ezberdinak daude. Hirietara lehenago heltzen da dena. Sexologia errekurtso gehienak hiriburuetan daude, baina herrietara ere helduko dira.

### **Zeintzuk uste duzu direla gabezia nagusiak?**

Bikote asko ez datoz bat. Harremanetan sortutako arazoak bikoteko kide baten zailtasunak (eiakulazio goiztiarra, baginismoa...) baino ugariagoak dira. Hori oso kontuan izan behar da. Gakoa harremanean dago askotan. Gainera, informazio falta, mito faltsuak... daude. Hori 13 edo

14 urteko gaztetxoengan zein helduegan ikusten da eta norbanakoaren bizitzan zein bikote harremanean eragina du. Gabeziarik handiena informazio eta heziketa falta da eta, gainera, ez da ezer egi-

## *“Komunikabideetan ez da sexuaz modu konstruktiboan informatzen eta ez da balioztat hartzen”*

ten hori konpontzeko. Ikastetxeetan eskaintzen diren sexu heziketa saioak oso pobreak dira. Ziklo guztian bospasei saio bakarrik eskaintzen zaizkie eta neska-mutikoak euren buruari galderak

egiten hasten direnerako formazioa bukatzera doa. Ez dute nork erantzungo dien, gurasoekin ere ez baita lan egin. Beraiek dira seme-alabekin daudenak, ez sexu hezitzaileak. Hori dela eta, tresnak eman behar zaizkie. Inkesta batean neska-mutikoek euren informazio iturri nagusiak lagunak, Internet eta telebista zirela eta euren nahia informazioa gurasoengandik eta anaia-arreba nagusien-gandik jasotzea zela zioten. Hori dela eta, udaletxetan gurasoak hezitzeko aukera eskaintzen ari naiz.

### **Nola ikusten duzu komunikabideen papera?**

Egunkarietan beti ageri da sexualitatea-rekin harremana duen albisteren bat, baina beti morboak eta arriskuak dute protagonismoa. Sexuaz ez da modu konstruktiboan informatzen eta ez da balioztat hartzen. Modu sinplean lantzen da, eduki gutxirekin.



# Luxenburgon Schleck anaiak eta Zumarragan Lasa ahizpak

*Txirrindularitza zaletasuna gaixotasun kutsakorra da. Hala, kirol honen historian aita-seme eta anaia asko aurkitu ditzakegu: Eddy eta Axel Merckx; Johnny Schleck eta Frank eta Andy semeak; Lejarreta, Gonzalez de Galdeano eta Izagirre anaiak... Zorionez gero eta emakume gehiago ibiltzen dira bizikletan eta ahizpen arteko transmisio kasuak ere aurki ditzakegu dagoeneko. Horietako bat oso gertu, Zumarragan bertan. Nekane Lasa Espainiako ziklo-kros eta mendiko bizikleta txapelduna izan zen eta ondoren bere ahizpa Izarori pasatu zion lekukoa.*

Izaro Lasa Nekanerengandik lekukoa jasotzen (puzgailua) Zumarragako Izazpi auzoan.



Izaro Lasa, tropelaren buru, Frantziako lasterketa batean.



Nekane Lasak 28 urte ditu, Soin Hezkuntza ikasi zuen eta azken bi urteotan Beasaingo udaltzaingoan lan egin du. Jardueraz aldatzea erabaki du, baina oraindik ez daki zer egingo duen etorkizunean. Izaro Lasak 23 urte ditu, Dietetika eta Nutrizio ikasketak egin zituen eta Villabonako belardenda batean lan egiten du. Nagusiak ondo gogoratzen du nola zaletu zen. “Umetatik bizikleta izan da nire jostailu kuttuna. 18 urterekin hasi nintzen lehiatzen, aitaren eta anaiaren eraginez. Aitak anaia animatu zuen eta ondoren ni hasi nintzen”. Duela hiru urte utzi zuen lasterketa mundua, primerako palmaresa lortu ondoren: Espainiako txapelduna izan zen ziklo-kros eta mendi bizikletan eta munduko txapelketetan ere parte hartu

zuen. Errepidean Giroan eta Munduko Kopako lasterketetan parte hartzeko aukera izan zuen.

***Izaro Lasa:***  
***“Nire helburua etxeko lasterketetan ondo aritzea eta Giroan parte hartzea da”***

Umetan Izaro Lasa ez zen bere ahizpa bezain zalea, baina pixkanaka zaletu egin zen. “Nekanerekin ibiltzen hasi nintzen eta berak lehiatzeari utzi zione-


an lekukoa pasatu zidan. Debarrena taldeko Juanjo Sebastian zuzendariak eurekin lehiatzera animatu ninduen eta baietz esan nion. Hobetzen ari naizela ikusten dut eta gustura nago. Nire helburua etxeko lasterketetan ondo aritzea eta Giroan parte hartzea da”.

Nekane lagundu egiten diola dio, baina honek aholku gutxi ematen dizkiola aipatu du. “Nik nola lan egiten nuen ikusiz ikasi du. Ez zait aholkuak ematea gustatzen. Beharrezkoa iruditzen zaidanean bakarrik egiten dut. Nire ustez denok dugu probatzeko eta hanka sartzeko eskubidea”. Bere ahizpak oraindik ez duela onena eman uste du. “Hiru denboraldi bakarrik daramatzanez lehiatzen hobetzeko aukera handia du. Dena den, nire ustez kirola ez da

Nekane Lasa munduko ziklo-kros txapelketan.



Nekane Lasa mendiko bizikletarekin.



garrantzitsuena izango bere bizitzan. Ez dut uste sekula bere muga non dagoen ezagutzerik izango dugunik". Izarok Nekaneri arrazoia eman dio. "Lanean ari naizenez, ezin diot bizikletari %100 eskaini".

Hala ere, aspaldi utzi zion Nekanek Izaro jarraitzen ahalegintzeari. "Denboraldiko une zehatz batzuetan bakarrik irteten gara elkarrekin: ni entrenatzen ari naizenean eta bera topera ez dagoenean. Bestelakoan erritmo ezberdinak ditugu eta dagoeneko ez dut sufritzeko gogorik. Nahiago dut nire pare dabilen jendearekin irten".

Gainera, Izaro errodadorea da eta ez da erraza halakoei jarraitzea. "Aldapa gora ez nabil oso fin, baina tropelean ematen diren tiroiei ondo eusten diet. Egia esan oraindik ez dut neure burua oso ondo ezagutzen". Nekanek bera, ordea, toki guztietan antzera moldatzen zela dio.

"Sekula ez naiz bereziki ondo ibili toki batean edo bestean. Teknika ona nuen, ziklo-krosean eta mendiko bizikletan ibiltzen nintzelako. Jendeak jaitzieretan hori nabari zela esaten zidan".

Aurtengo denboraldia bere ahizparentzat


### **Nekane Lasa:**

*"Ez zait aholkuak ematea gustatzen. Denok dugu probatzeko eta hanka sartzeko eskubidea"*

oso garrantzitsua dela gehitu du. "Orain arte lasterketa mundua ezagutzen eman du denbora, baina aurtengo denboraldia bere ahizparentzat oso garrantzitsua dela gehitu du. "Orain arte lasterketa mundua ezagutzen eman du denbora, baina aurtengo denboraldia bere ahizparentzat

den, benetan nahi duena Izarok bizikletaz berak bezainbeste gozatzea da. "Hasieran izugarri gozatu nuen. Bizimodu hori asko gustatzen zitzaidan, baina nekatu egin nintzen. Gogorik ez nuen arren jarraitu egin nuen eta txirrindularitza betebeharra bihurtu zen niretzat. Eman baino gehiago kendu egiten zidan. Bizimodu hartara ohituta nengoenez kostatu egin zitzaidan uztea, baina erabaki zuzena izan zen".

Egun, berriro bizikletaz gozatzeaz gain, bizitzari zukua ateratzen ari zaiola esan du. "Gustuko gauza askori uko egin behar izan nien txirrindularitzaren mesedetan, baina orain berreskuratu egin ditut: mendira joan, kanpina egin, kalera irten eta kirol honekin harremanik ez duen jendea ezagutu...". Orain Izaroren ordua da. "Ilusio handia dut. Nekaneren eskutik sartu nintzen mundu honetan eta barrutik ondo ezagutzeko gogoia dut".



Alex Areizaga

Informatika

### 'Libre Office'

Osabaren erretiro espiritualeko inspirazio agortezinak harritzen jarraitzen nau astea joan eta astea etorri. Oraingoan, *Microsoft Office* (gaiztoa) eta *Open Office* programentzako alternatiba batekin dator. *Libre Office* (izena ez dute asko pentsatu, je je) *Open Office*ren garapena dugu, baina independentea. Oinarri berberetik abiatuta *Open Office* garatzen duen enpresatik joan, eta programak irekia eta doakoa izaten jarraitzea nahi zuen programadore talde batek landu du. *Libre Office*ek bere arbasoak baina aukera gehiago ematen ditu gainera, sei aplikazioekin: *Writer*, *Calc*, *Impress*, *Draw*, *Base* eta *Math*, beti ere izaera ireki eta aske hori mantenduz. Libreoffice.org helbidetik deskargatu dezakegu, hiru bertsioetan: *Windows* gaiztorako, *Linux* askerako eta *Mac* ederrerako.



Miren Arrieta

Osasuna

### Haur jaioberriaren kolikoak

2 aste eta 4 hilabete arteko jaioberri osasuntsuetan agertzen den sindromea da, non haurrak, arratsalde-gau aldean, tartekako marru lasai ezina agertzen duen, zergatia atzeman ezin delarik. Sorrera ezezaguna du eta teoria ugari daude bere inguruan: arrazoi intestinalak, hormonalak, faktore psikosozialak eta baita guraso eta seme-alaben arteko interakzio arazoak ere. Ez da patologikotzat hartzen. Autolimitatua da, hasieran biziagoa, denboran aurrera indarra eta maiztasuna galtzen duelarik, haurrak 3-4 hilabete betetzen dituenan desagertzeko. Ez dauka tratamendu eraginkorrik eta oso garrantzitsua da gurasoak lasai izatea, haurraren bost beharrak asetzea (gosea, edoskitzea, babesa, loa, eta jolasa). Soinu erritmikoek lasaitzen dituzte (labadora, telebista), auto-ko paseoak ez du huts egiten. Garrantzitsua da gurasoak atsedenerako txandatzea eta esne hartzeak lasaitasunez egitea: gurasoak erlaxatuak egon behar dute, denbora nahikoa hartu behar dute, azkarregi hartzea eragotzi behar da eta haurra jan ondoren segituan etzan gabe.

## 1996

### *Iñaki Beitiari omenaldia*

Iñaki Beitiari 1996ko uztailaren 20an egin zitzaion omenaldian ateratako argazkiak. Ezkerretik eskubira: Asier Otamendi, Asier Iriondo, Nerea Elustondo eta Gorka Ojanguren.



## Mikel Iturriotz

*Mikel Iturriotz urretxuarrak 15 urte ditu eta 4. DBH ikasten ari da Garaialde Lizeoan. Bera izan da aurtengo Iparragirre narratiba, poesia eta bertsopaper lehiaketan saria jaso duen herritar bakarra. Bertso onenak aurkeztu ditu gaztetxoen mailan. Etorkinei buruzkoak dira. Iturriotz Amaia bere arrebaren eskutik hasi zen Urretxu eta Zumarragako bertso eskolan eta dagoeneko lorpen garrantzitsuak ditu. Iaz txapeldunordea izan zen Gipuzkoako eskolarteko txapelketan eta Euskal Herrikoan parte hartzaile gazteena izan zen. Kirol zale amorratua ere bada.*

### Zer izan nahi zenuen umetan?

Kirol esataria.

### Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea, bizikletan ibiltzea, futbolearen jokatzeara...

### Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

### Gustuko bertsolaria?

Bizkaitar batzuk gustatzen zaizkit: Arkaitz Estiballes, Igor Elortza, Unai Iturriaga...

### Gustuko futbolaria?

Realekoen artean Mikel Aranburu eta bestela Oleguer.

### Nork irabaziko du futbol liga?

Bartzelonak irabaztea espero dut.

### Nori emango zenioke Urrezko Baloia?

Izendatuta zeudenen artean Xaviri, baina 2010eko onena Sneijder izan zela uste dut: Liga, Kopa eta Champions irabazi zituen eta Muduko Kopako finala jokatu zuen.

### Gustuko saskibaloi taldea?

DKV Joventut. Riky Rubio eta Rudy Fernandez zeuden garaian zaletu nintzen.

### Gustuko saskibaloi jokalaria?

Riky Rubio.

### Ilehoriak ala beltzaranak?

Ilegorriak.

### Egindako azken operaria?

Amari Olentzerotan oparitu genion liburua. Ez genekien aitari zer oparitu eta txerri muturra erosi genion.



### Eta jasotakoa?

Kataluniako selekzioaren elastikoa.

### Data bat?

Ekainak 21: oporrak hartzen ditugun eguna.

### Mutil eta neska izen bana?

Xabi eta Idoia.

### Zein egunkari irakurtzen duzu?

Berria.

### Gustuko telebista saioa?

Estudio Estadio eta halakoak eta partidak ikusten ditut.

### Bereziki gorroto duzuna?

Mujeres y hombres y viceversa.

### Pelikula bat?

Braveheart eta Green Street Hooligans.

### Liburu bat?

Eskubeltz taldearen abenturak oso gustura irakurtzen nituen umetan.

### Abesti bat?

Flogging Molly folk talde irlandarrarenak.

### Soinu bat?

Haizearena.

### Usain bat?

Arkume errearena.

### Janari bat?

Arkumea.

### Ura ala...

Schuss.

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

ARETO  
NAGUSIAN

*Etorri aurretik  
izena eman!*

# ATE IREKIAK

## Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE MARTXOAK 17** osteguna, 17:30

## Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI OTSAILAK 24** osteguna, 18:00

**IRUN MARTXOAK 3** osteguna, 18:00

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORIATZA MARTXOAK 3** osteguna, 18:00

## Gastronomia Zientzien Fakultatea

**VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12**

larunbata, 10:30. Europa Biltzar Jauregia.




902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



# Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tf. 943 72 05 11  
Fax: 943 72 44 10  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza  
Industria pabilioiak  
Urbanizazio lanak